

“Hitzaditza” Baionan

HELBURUA, euskaraz momentu goxoa igarotzea. Horixe lortu nahi dute Euskal Kultur Erakundeak eta AEK-k. Horretarako antolatu dute *Hitzaditza*, euskarazko diktaketaren hirugarren edizioa. Aurten hiru diktaketa izango dira; bata 13 eta 16 urte artekoentzat, bestea euskara ikasten ari direnentzat eta hirugarrena euskaldunentzat. Maiatzaren 31n izango da saioa, Baionan, AEKren egoitzan.



laz gazte mailan irabazi zutenak.

Larreko Saria Xanti Begiristainek jasoko du

EUSKALERRIA IRRATIAK urtero ematen duen Larreko Saria Xanti Begiristaini emango dio ekainaren 5ean. Iruñerrian euskararen alde egin duen lanagatik jasoko du saria Begiristainek.

“Hire Esku” abian da

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK kudeatzen duen programa da *Hire Esku*. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, B eta D erduan ari diren ikasleek euskara gehiago erabili dezaten egonaldi atseginak antolatzen ditu. Hiru eta bost eguneko egonaldiak dituzte prest maiatzaren 19an hasi eta ekainaren 20a bitartean. Informazio zehatza aurki daiten www.gipuzkoaeuskara.net webgunean.

“Bat” aldizkariaren 66.a

SOZIOLINGUISTIKA aldizkariak teknologia berriak eta euskara uztartu ditu 66. zenbakian. Besteak beste ondoko gaiak jorratu dituzte: Euskara XXI. mendeko informazio eta komunikazio teknologietan, IKTak, Hizkuntza-teknologia Ixa taldean, euskararen erabilera errazteko eta sustatzeko aplikazioak eta Itzulpen automatikoa: aukerak, arazoak eta erronkak.

Interpreteen lanaz eskuliburua

JUANJO PAGOLA eta Joseba Urkiak idatzi dute *Interpretearen eskuliburua*. Azken hamabost urteetan euskararen eta gaztelaniaren arteko interpretazio arloan egindako lanean oinarritu dira liburua egiteko. Besteak beste, interpretazio motak, interpreteen prestakuntza eta hizkuntzen tipologiagatik sortzen diren arazoak aztertu dituzte.

TALAIAN

Sindikatuaren gorengoan emakumea

LABen VII. Biltzarrean Ainhoa Etxaide izendatu dute sindikatuko idazkari nagusi. Lehen aldiz emakumea izango da sindikatu bateko buru, bai Euskal Herrian baita Espainiar zein Frantziar Estatuetan ere. Askok ez izan arren, munduan badira beste erakunde batzuen buru diren emakumeak, baita estatuburu direnak ere. Emakumea sindikatuaren gorengo mailan egotea albiste ona da matxismoak bizirik segitzen duen eta berdintasuna lortzearen dagoen euskal gizartean. Ez luke albiste izan behar, baina bada. Eta hala da, aukera berdintasuna, emakume eta gizonen eskubide eta betebeharrak berdintasuna, oraindik ez delako ematen. Emakumearen kalterako, noski.

Itxura denez, balio ezberdina hartzen du erakunde, sozietate, enpresa edo gobernuen goi postuetan emakumeak egoteak. Badirudi emakumeek euren balioa behin eta berriro erakutsi behar dutela, gizonezkoek ez bezala. Hau da, gizarteak ekintza edo jarrerak epaitzean gehiago eskatzen diola emakumezkoari gizonezkoari baino. Eta iraingarria da. Gauza bera gerta liteke Etxaideren aukeraketarekin. Agian, norbaitek, Rafa Diez eta Ainhoa Etxaidek burututako lana epaitzeko garaian neurgailu ezberdinak erabiltzeko tentazioa izan lezake. Horregatik, egokia litzateke sindikatu abertzalearen barruan zein gainerako erakundeetan emakumearen postua normaltasunez ikustea; eta bere jarrera eta jarduerak ez epaitu eta baloratzea emakume izatearren, ekintza sindikala garatzearen baiziki.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Iñaki Segurolak *Diario Vascon* esanak: “Bai, bai, beti izan dut tribuko zaharren hitzetara belarria adi eta erne. Horietan beste doinu bat, beste tonu bat, beste arrazoi-modu batzuk aditu izan ditut, beharbada estandarretik ihesi. Estandarrak gauza onak izango ditu, baina ihes egiteko gogoa ere ematen du; hau, dena dela, hizkuntza guztieta-ko kontua da”.

Carme Junyent hizkuntzalari katalanak *Berrian* esanak: “Esango nuke bunkerizazioerako joera dagoela. Hau da, ama hizkuntza soilik mantendu nahi izateko jarrera ari da gailentzen. Baina gaur egun halako egoerarik mantentzea ezinezkoa da. Hemen aurkezturiko azterketak [*Hizkuntzak eta immigrazioa* kongresua] argi uzten du ez dela bideragarria: EAEn ehun hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Beraz, Euskal Herri euskalduna ez da posible. Ez immigrazioaren ondorioz, lehenago ere beste hizkuntza batek hartu baitu euskarari zegokion lekua”.

Maria San Gil, ihesaren hipotesia

PP MODUKO alderdi handi batek hauteskundeetan bigarrenkoz bere helburu nagusia —gubernua— lortzen ez duenean, barne mugimenduak izatea eta lidergoak zalantzan jartzea normala da. Baina hauteskundeen biharamunean nekez pentsa zitekeen lurrikara alderdia zatitzerainokoa izan zitekeenik.

Lurrikararen epizentroa, gainera, euskal lurretan izan da eta protagonista Maria San Gil. Leopoldo Barreda buruzagi bizkaitarrak argi esan du EAEko PPren baitan ulertzen ez den aldegitia dela San Gilena. PPko eskuindarrenek hobeto ulertu dute antza denez eta *Cope*-k eta *El Mundo*-k gidatutako konspirazio mediatikoak ondo baino hobeto baliatu du San Gilen ihesa.

Ihesa bai, batzuen ustez hori baita EAEko PPko lehendakariaren erabakiaren azpian dagoen benetako jarrera. Politika utzi nahi omen zuen, baina horretarako aitzakia edo arrazoi indartsuak ere bilatu behar zituen alderdia eta politikaren lidergoa heroien estilora gidatu duenak. Bere gaitza medio politika uztea inork baino samurrago zuen San Gilek eta alderdi barruan ezetik gizaratean ere ondo ulertuko zen bere erabakia. San Gil bera izango litzateke, ordea, arrazoi handiagoen beharrean lego-keena eta horretarako primeran etorri ei zaio PPren oinarritzko printzipioen desbideraketaren auzi hau.

AIPATUTAKOA egiten den interpretazioetako bat bada, eta logika maila bat izan badezake ere, zaila da pentsatzea Mariano Rajoyren aurkako konspirazio honetan San Gilek ez duela zeresan sakonagoa. Areago ezaguna denean Jaime Mayor Orejarekin duen lotura ideologiko eta harreman estua. Duela egun batzuk



Mariano Rajoyk dagoeneko sartu du PPren zuzendaritzan Alberto Ruiz-Gallardon, askoren ustez, Moncloarako popularren hurrengo hautagaia izan daitekeena.

entzun nituen *Popular tv*-n Isabel San Sebastianek gidatutako tertulian Mayor Orejak esandakoak eta Rajoy aipatu gabe ere, argi adierazten zuen alderdiaren zuzendaritzatik bideratu nahi zena PPren politikaren esentzia aldaraztea zela. Mezua ez da hitzez hitzekoa, baina hala zioen gutxi gorabehera: Espainiaren defentsa izan da PPren lehentasuna eta ardatza, eta orain horren orde ekonomia, hezkuntza eta eguneroko bizitzako beste gai batzuk jarri nahi dira lehen lerroan; akatsa da hori, areago Zapaterok bigarren trantsizioarekin jarraitzen duenean eta horrekin azken 30 urteetako Espainia konstituzionala eta autonomikoa arriskuan jartzen denean.

Ez da erraza irudikatzea PPn zer gertatuko den, ezta zatiketaraino iritsiko ote den ere, baina Rajoyren barne oposizioa irudi mediatikoak erakusten duena baino ahulago eta sakabanatuagoa ei da. Rajoyren benetako helburua aznarismoaren amaiera gidatzea litzateke, baina ez bera izatea hurrengo hauteskunde orokorretarako hautagaia. Horretarako, prentsa eskuindar eta espainiarra jarraituta bederen, gero eta indar

handiagoz entzuten dira Alberto Ruiz-Gallardon edo Francisco Camps Valentziako buruzagia moduko pertsona *pragmatiko* eta *zentrismo*ak. EAEko PPren lehendakari-tzarako, ordea, maiatzaren 16an *El Diario Vasco*-k zioenaren arabera, Gasteizko alkate ohi Alfonso Alonso izan daiteke San Gilen ordezkaria.

POPULARREN krisi honek guztiak nola eragin dezake euskal politikak egun bizi duen egoera nahasi eta garrantzitsuan? Patxi Lopezek Ajuria Enea inoiz baino gertuago ikusten duen honetan, PPren boto emaille mordoska bat erakarri ditzake, bategatik, barne liskarrek popularren irudia kaskartzen jarraitzen badute eta, bestetik, PSEk eta Lopezek abertzaletasunaren aurkako hesi sendoaren irudia gizarteratzen badute.

Ezaguna da boto konstituzionalistak aparraren gainean dagoen alderdira jo ohi duela eta hori une honetan PSE dela. PPK, gainera, hemen duen irudiarekin denbora gutxi du zentro-rainoko bidaia sinesgarritasunez egiteko eta horrek ere PSEren alde egiten du. Sozialisten zailtasun handiena? Lopez ez dela Zapatero.